



Mugi/atu

Beatriz Chivite Ezkieta

Pamiela Poesia, 46

978-84-9172-127-7

2019. urtea - 96 or. - 15x21 cm

13,00 €

I.

Zuhaitzaren adarrak
muga gurutzatzen du
nongoak dira aranak?

II.

Plataformaren gainean
ezezaguna den guztia
zabal-zabalik dago
gure aurrean.

III.

Marra bat zeharkatu
eta bapatean
aske zara
haurren jolasetan bezala.



Beatriz Chivite Ezkieta
(Iruñea, 1991)

Iruñean jaio eta oinarrizko hezkuntza mailak Burlatan egin ostean, Nazioarteko Batxilergoa Duinon (Italian) egin zuen, United World Colleges-en beka irabazita (2007-2009).

Txinan bizitako esperientzia abiapuntu gisa hartuta, bere lehen olerki liburua idatzi zuen: *Pekineko kea* (2017, Pamiela). Lan honekin, 2012an Iruñeko Udalak antolatutako Poesia Lehiaketa irabazi zuen. 2014an, berriz, Ernestina Champourcin XXV. Poesia Lehiaketa irabazi zuen *Metro* (2014, Arabako Foru Aldundia) liburuarekin. Azken honekin, 2015ean, Lauaxeta Saria ere irabazi zuen Chivitek. 2016an, gaztelaniara itzuli eta Papeles Mínimos argitaletxeak plazaratu zuen. 2016an Nafar Gobernuak Gazte saria jaso, eta Blas de Otero Poesia Lehiaketa ere irabazi zuen, urte berean, *Biennale* (2017, Erein) liburuarekin.

2017an, Donostia Kulturak eta Donostia 2016k sustatutako «Beste Hitzak-Other Words» sorkuntza egonaldia egin zuen Mariborren (Eslovenian), mugei eta migrazioei buruzko egitasmo poetiko batekin.

